

ANBULATORIOKO LANGILEAK: GURE OSASUNAREN ZAINDARIAK

•Zuek bai jakin!: Jose Jabier Larrañaga, Jose Manuel Kerejeta eta Jose Mari Lasa

•Izerdi patsetan: Ander Txintxurreta •Boteprontoan: Eider Gabilondo

Herri Aldizkaria Otamotz

2010eko

iraila

159. alea



PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
☎ 943 72 41 00
e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09
e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Oihana - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

04 Hilabete honetako gaia

Anbulatorioko langileak: gure osasunaren zaindaria

09 Argazki zaharra

12 Komikia / Egurra partitzen

13 Zenbat buru, hainbat aburu

Zer iritzi duzu Urretxuko Udalak ibilgailuei jarri dizkien oztopoi buruz?

14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi

16 Klik eta klik

ZUGA

18 Zuek bai jakin!

Urrezko Domina urrezko txistularientzat

22 Erreportajea

Aitor Andola: ACB ligak ez du sekreturik urretxuar honentzat

24 Izerdi patsetan

Ander Txintxurreta

28 Gure aholkuak

29 Literatura

30 Boteprontoan

Eider Gabilondo



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Anbulatorioko langileak: gure osasunaren zaindariak

Medikuak, suhiltzaileak eta udältzainak. Lanbide bereziak. Askotan larrialdietan lan egitea suertatzen zaie eta ez da erraza: gauzak ondo irteten direnean dena da esker ona eta laudorioa, baina gauzak okertzen direnean... Ale honetan Zumarragako ambulatorioko arduradunarekin hitz egin dugu bertan egiten duten lana eta euren lanbidea hobeto ezagutzeko.

Anbulatorioko langileetako batzuk. Argazkia: Gotzon Aranburu.



Resu Perez de Arenaza erizaina da. Gasteizen jaio zen eta 1983an Zumarragara etorri zen lan egitera. Gurera etorri aurretik Arabako herri txiki batean lan egin zuen: Artziniegan. "Aldaketa handia nabaritu nuen. Han eguneko 24 orduetan guardia egiten genuen eta hemen, berriz, larrialdi zerbitzua zegoen. Hemen gauetan lasai lo egin nezakeen: gutxiago irabazten nuen, baina bizi kalitatea irabazi zuen". 27 urte daramatza dagoeneko gure artean, gus-tura dagoen seinale.

Urte hauetan guztietan osasun arloa asko aldatu da. Medikuntza asko aurreratu da eta berarekin osasun zentroak ere bai. Urretxuar eta zumarragarrek Iparragirre hiribideko lokal zaharra utzi eta 1990ean geltokietako plazako eraikin berrira joan ziren. "Hemen han baino askoz ere hobeto gaude. Garai hartan erizaintza kontsultak ezarri ziren eta han ez zegoen horretarako tokirik. Medikuek kontsultak parte-

katzen zituzten! Lan egiteko modua aldatu egin behar zen eta horretarako lantokia aldatu beharra zegoen".

Ordutik 20 urte pasatu direnez, egungo anbulatorioan ere aldaketak egin behar izan dira. "Txikia gelditu zen eta azken bi urteotan berrikuntzak egin ditugu. Herri guztiak obrak pairatu behar izan ditu, baina merezi izan du. Lehen solairuak aldaketa gutxiago behar izan ditu, baina gainontzeko solairu guztietan aldaketa handiagoak egin dira. Kontsulta gehiago behar genituen eta obra handia egin da. Zorionez, krisia heldu aurretik egin ahal izan da. Detailtxoak bakarrik falta dira: gortinaren bat eta heldulekuren bat jartzea".

Perez de Arenaza eta bere lankideak oso gustura daude. "Egindako lana eskertzekoa da. Egun gaixoei zerbitzu ona eskaintzeko toki aproposa dugu. Urte luzetan hala izatea espero dugu. Izan ere, kontsulta gehiago lortzeko artxiboa txikitu da eta hau ez da haziko: dagoeneko historial guztiak informatizatu ditugu eta etorkizunean ez du papeirik behar izango. Bestalde, liburutegi handiagoa behar genuen eta sotora eraman dugu. Toki argiak pazienteentzat utzi ditugu", azaldu du.

Zentroko arduraduna izanik, obra gertutik jarraitu du. Bere ohiko jarduera alboratu gabe, noski. "Gaixoei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko ordutegiak, espazioa, giza baliabideak... kudeatzeaz arduratzen naiz. Horretaz gain, ikerketaz, langileen trebatzeaz eta zentroan egin behar diren konponketaz ere bai. Langileen eta eskualdeko gerentziaren arteko bitartekaritza lana ere nire lanpostuaren betebeharra da".

Zumarraga eta Urretxuko osasun zentroak bi berezitasun ditu: Ibaiondo heziketa zentroa bere gain du, eta herri berean ospitalea du. "Egunero mediku bat eta erizain bat joaten dira Ibaiondo heziketa zentrorra. Bi ordu ematen dituzte bertan. Hara eraman dituzten gazteek bizitza gogorra izan dute eta gainontzeko gazteek ez dituzten patologia dituzte", azaldu du.

Aipatu bezala, Urretxu eta Zumarragako osasun zentroak herri berean ospitalea du. Hori ere ez da ohikoa. "Horrek ez du

Hemengo osasun zentroak bi berezitasun ditu: Ibaiondo heziketa zentroa bere gain du eta herri berean ospitalea du

eraginik funtzionamenduan, baina gertutasuna dela eta ahalegin berezia egin dugu ospitalarekin koordinatuta lan egiteko. Batzuetan, arrazoi ezberdinak medio, komunikazioa ez da bi aldeek nahi bezain ona izan. Elkar hurbiltzeko ahalegin asko egin dira: batzorde asko sortu eta desagertu dira. Komunikazio premia zegoen eta duela hiruzpalau urte horretarako lantaldea sortu zen. Pixkanaka aurrera egiten ari gara, baina lana egiteko modua ezin da egun batetik bestera aldatu. Gu informatizatuta gaude eta ospitalea horretan ari da, adibidez. Osakidetzaren helburuetako bat informatika bidezko komunikazioa hobetzea da. Hori lortzeko asko erraztuko du. Orain arte gaixo bat ospita-

lera bidaltzean ezin genuen informazioa lortu idatzirik bidaltzen ez baldin baziguten, baina denok programa berbera erabiliko bagenu pazienteen historia euren eta gure esku izango litzateke".

Hori oso garrantzitsua dela dio. "Gustatu edo ez, interkonektatuta gaude. Biengan eragina duten alorretan ezberdin lan egiten badugu horrek egunerokoan eragin handia du. Espezialisten lanak, batez ere, ondorioak ditu gure egunerokoan eta hori arazo handia zen. Egun gure arteko komunikazioa ona da".

Osakidetzak bestelako arazoak izan ditu azkenaldian: herri batzuetan larrialdietako zerbitzuak murrizketak izan ditu eta jendeak ez du ondo hartu. Neurriak Zumarraga eta Urretxuko osasun zentroan ere eragina izan du, orain legazpiarrak ere hartzen baititu: astegunetan 17.00etatik aurrera, larunbatetan eta igandetan. Perez de Arenazaren ustez Osakidetzaren erabakiak ez du inongo buruhausterik sortuko. "Legazpin gaixo gutxi hartzen ziren. Dena den, kontuan izan behar da aldaketa urteko sasoirik lasaienean eman dela: neguan zer gertatzen den ikusi beharko da. Baliabide gehiago beharko bagenu gerentziak gure esku jarrito litzukeela uste dut".

Arabarrak esan bezala, klimak larrialdi zerbitzuan eragin handia du. "Negua gripe garaia da eta, gainera, gaixo batzuen gaitzek okerrera egiten dute. Udan jende gutxiago etortzen da. Guretzat urtaro lasaiena da, baina kostaldeko herrietan lan egiten dutenentzat gogorrena. Hona etorri nintzenean udan ez zen inor herrian gertatzen. Orain, berriz, garai batean baino lan gehiago izaten dugu".

Lan hori guztia egiteko osasun zentroan

50 lagun daude: medikuak, erizainak, administrariak... "Gehienak ingurukoak dira, baina garai batean oposaketak zeuden bakoitzean langileen erdia joan egiten zitzaigun. Egungo gehienek bertan gelditzeko asmoa dute eta hori oso onuragarria da. Berriak banaka heltzen dira eta, hala, integrazioa errazagoa da. Giro oso ona dugu, guztiok egin dugun ahalgini esker".

Alor guztietan gauzek nabarmen egin dute hobera azken urteotan. "Heldu nintzenean sei mediku, hiru erizain, laguntzaile bat, bi pediatra, lau praktikante...

"Norberak bere

osasunaren gaineko

ardura hartu behar du eta

bere buruaren alde zer

egin dezakeen ikusi"

ginen larrialdietako zerbitzuaz gain. 28 lagun ginen, egungoen ia erdia. Biztanlegoa igo ez denez, argi dago egungo zerbitzua garai batekoa baino askoz ere hobea dela: giza baliabide gehiago ditugu, ordutegia zabalagoa da, medikuntzak aurrerapauso nabarmenak eman ditu... Lehen praktikanteok ordu-bete bakarrik ematen genuen zentroan eta medikuek bi eta erdi. Egun, berriz, guztiok zazpi ordu ematen ditugu bertan. Lehen praktikanteok etxez etxeko zerbitzuaren denbora luzea injekzioak jartzen ematen genuen. Orain, aldiz, gaixo kronikoen zainketan, heziketan eta

zentzora etorri ezin direnen zainketan erabiltzen dugu denbora hori".

Perez de Arenazak herritarrak zerbitzuaren hobekuntza nabaritu eta eskertzen dutela uste du. "Dena den, iragana ahazteko joera dugu eta egungoa arrunta iruditzen zaigu. Zorionez, arrunta bihurtu da. Ez dadila kalitatea jaitsi!".

Zerbitzua aldatu den moduan, denborarekin gizartea ere asko aldatu dela uste du. "Egun oso gaizki hartzen dugu gaixo jartzea: nahi dugun bezalako bizimodua eraman ondoren, gure arazoak konponduko dituen norbait ondoan edukitzea gure eskubidea dela uste dugu. Gure osasunaren ardura bakarria profesionalena dela uste dugu. Ezin gara gaixo jarri, beti osasuntsu egon behar dugu, ezerk ezin gaitu gelditu... Telebistak berak mezu horiek igortzen ditu. Lehen ez genuen horrenbeste laguntza behar. Katarroa genuenean amak berak prestatzen zigun sendagaia eta okerrera egiten bazuen bakarrik joaten ginen medikuarengana. Egun, berriz, jendea ezta rrian azkurea duela esanez etortzen da. Batzuek ez dakite euren osasuna eta zerbitzuak ondo kudeatzen. Norberak bere osasunaren gaineko ardura hartu behar du eta bere buruaren alde zer egin dezakeen ikusi. Ez dut 48 orduko parranda egitea epaituko, baina gau guztia kantuan ematen badut hurrengo egunean ezta rriko mina izatea normala da. Ez dago gure bizitzako arazo guztiak konponduko dituen pilula majikorik eta gaitz guztiak ez dira sendagaiekin tratatu behar".

Emozioak kudeatzeko ahalmena ere galdu dugula uste du. "Lehen jende guztia etxean hiltzen zen eta familia guztiak parte

hartzen zuen heriotza prozesuan. Ondoren, dolua eta negarra zetorren. Egun norbait hil eta ezer ez gertatu balitz bezala jarraitu nahi dugu. Denok altuak, indartsuak eta osasuntsuak izan behar dugula sinestarazi digute eta ez dugu gaixotasunekiko eta heriotzarekiko tolerantziarik. Ahuldu egin gara".

Horrek osasun zentroetako langileengan eragin handia du. "Bizitzako gauza arruntak gaixotasun bihurtu ditugu. Dena zozgarria izan behar dela sinestarazi digute, gure haurren traumen beldur gara, urteetan osasun arloko langileok osasunaz guk

"Indartsuak izan behar

dugula sinestarazi

digute eta ez dugu


gaixotasunekiko

tolerantziariak"

bakarrik hitz egin dezakegula esan izan dugu... Denok zoratu egin ginen", aitortu du. Zorioneko krisiak, honetan ere, gure tokian jarriko omen gaitu. "Krisia heldu behar izan da osasun sistemak ezin duela dena konpondu jabetzeko".

Dena ezin du konpondu, baina bai ia dena. Zumarragan, adibidez, mediku kontsultak, erizaintza kontsultak, pediatriak, emaginak eta odontologoak daude. Haurren hazkuntzaren jarraipena egiten da, zentzora joan ezin diren gaixo kroniko-ei bisita egiten zaie... Bestalde, patologia arinak erizainen eta gaixoen euren eskuetan uzteko asmoa dute. "Esan bezala, gai-

Anbulatorio zaharreko sarreran.



xoa hezi egin behar da: patologia arinen eta kronikoen kasuan gaixoari bere gaitzarekin bizitzen erakutsi behar diogu".

Osasun sistemari gero eta gehiago eskatzen diogu eta aldaketa batzuk ez ditugu ulertzen. Bat-batean medikuz aldatzea ez zaigu gustatzen, adibidez. Denon onerako da, ordea. "Mediku gehiago dagoen seinale da. Berriari pazienteak eman behar zaizkio eta horretarako besteei kentzen zaizkie", azaldu du Perez de Arenazak.

Medikuntzari, osasun sistemari eta medikuei gero eta gehiago eskatzeaz gain, batzuek errespetua ere galdu diete. Azkenaldian asko hitz egin da medikuek pazienteengandik jasotako erasoei buruz. "Toki batzuetan sekulakoa gertatu dira. Batzuk haserretu egiten dira medikuak eurek nahi dutena egiten ez dutelako: parranda baten ostean baja eman, adibidez. Beste batzuek medikuntzak dena konpondu behar duela uste dute, baina hori ezinezkoa da. Ez hemen eta ez inon. Lehen aipatu bezala,

Anbulatorio zaharreko langile batzuk, 1988an.



ez dakigu frustrazioarekin bizitzen. Zorionez eskualde honetan oso gutxitan jasan ditugu erasoak. Beste erkidego

“Lehen errespetu handiegia zitzaigun eta orain, berriz, batzuek ‘aizu emaidazu hau!’ esaten digute”

batzuetan arazo larria dute". Dena den, mediku eta pazienteen arteko harremana toki guztietan aldatu dela dio.

"Lehen zitzaigun errespetua gehiegizkoa zen. Jainkoaren parekoak ginen eta guk genion guztia zuzena zen. Baina kalitatezko zerbitzua eskaini behar dugun profesionalak besterik ez gara. Lehen errespetu handiegia zitzaigun eta orain, berriz, batzuek *aizu, emaidazu hau!* esaten digute. Hori ere ez da egokia. Bankuan ez badugu halakorik esaten, zergatik osasun zentroan bai?".

Bukatzeko, bankuek bezala, osasun zentroak ere ordutegia duela gogoratu nahi du. "Ordua hartzeko astelehenetik ostiralera 8.00etatik 20.00etara deitu behar da. Dagoeneko ezin da larunbat goizetan deitu. Dena den, Internet bidez edozein ordutan eskatu dezakegu hitzordua", amaitu du.

Resu Perez de Arenaza: "Pazientearekin eta bere familiarekin harreman estua izatea oso atsegina da"

Resu Perez de Arenazak ederki asko ezagutzen du bere lanbidea, dagoeneko hiru hamarkada baitaramatza lanean. Zumarragako osasun zentroan Usoa Busca bakarrik da bera baino beterano-agoa. Hala, hamaika pasadizo konta ditzake.

Nolakoak izan ziren zure lehen pausoak?

Uztailean hasi nintzen lanean eta martxoan erditze batetaz arduratzea tokatu zitzaidan. Handik bi hilabetera beste bat tokatu zitzaidan! Ikasketak bukatu berri nituen eta 14 herri txikiren kargu nengoen. Ospitale batean lan egiteko ikasi nuen eta ez zitzaidan burutik pasa halakorik tokatuko zitzaidanik. Baina norbaitek praktikante plazak atera zirela esan zidan eta handik 20 egunetara herri txiki haietan lanean nengoen. Praktikante lana egitera joan nintzen, ez haurrak mundura ekartzera! Hango emakumeak Gurutzetako ospitalera joaten ziren erditzera, baina... Zorionez, ikasten ari nintzenez erditze asko ikusi nituen.


Ez zen gozoa izango...

Azkenekoz norbaitek herrian erditu zuenetik urte asko pasatu zirela esan zidaten. Gainera, handik bi hilabetera baserri bate-
tik deitu zidaten. Medikuari ere deitu zioten, baina dagoeneko erizaina jakinaren gainean zegoenez ez zuela joateko asmorik esan zuen. Heldu nintzenez haurra lurrean zegoen, jaioberri, eta hotz handia egiten zuen.

Halakoak ez dira ohikoak izango.

Garai hartan halakoak gertatzen ziren.

Resu Perez de Arenaza bere bulegoan.



Lanbide honetan urte asko daramatzagun guztiok bizi izan ditugu halako esperientziak. Egun beste gauza batzuk gertatzen dira. Hemen abantaila handia dugu beste batzuekiko: ospitalea dugunez, istripuetako zaurituak ez dituzte gehienetan gurera ekartzen. Batzuetan jendea arazo larriekin etortzen da, baina ospitalea ondoan edukitzeak lasaitasuna ematen digu: beharrezkoa bada berehala dira ospitalean.

Zein da zuen lanaren alderik onena?

Pazientearekin eta bere familiarekin harreman estua izatea oso atsegina da. Ospitalean zailagoa da gaisoekin harreman estua egitea. Guk, ordea, bitzita

osoa daramagu eurekin: egun gurasoak diren nire paziente batzuei, adibidez, nik neuk jarri nien txertoa jaiotzean. Harreman estu hori oso ona da lana egiteko orduan.

Eta zer da gogorrena?

Aspalditik ezagutzen dituzun pazienteak gaixotzea eta hiltzea. Gaixotasunaren prozesu osoa gertutik jarraitzen dugu, hiltzen direnean senitartekoen minaren lekuko gara... Dena den, doluan laguntzea guretzat errazagoa da, ondo ezagutzen baititugu. Egia esan, gure lana oso aberasgarria da. Nire ustez pazienteek ez dakite zenbat ematen diguten gizatasun mailan.

80ko hamarkada amaiera

Urretxu eta Zumarragako pilotariak


Aitor Gago, Mikel Serrano, Xabier Goñi, Unai Urretabizkaia eta Igor Perez.



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Ekarri zure argazkiak eta nahi
duzun moduan aterako ditugu:
koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA

ARROZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 baxua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

PLAZAOLA ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Montaje e Instalaciones Electricas

HERCE

Electricistas, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

Construcciones MENDIOLA

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80



alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga



R E S T O B A R

Bidezar 17-ZUMARRAGA-943 53 46 85



MERTZERIA

Sekundino Esnaola, 2 - Zumarraga
Tel. 943 72 05 62

IKER

SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza - ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

Otamotz

Herri Aldizkaria

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Oihana - 647 319 757 - beasain@iragarri.net

Abiatu gara: hurrengo hitzordua urriaren 6an!

Zintzo Mintzok ekainean egindako gogoeta-prozesuaren ondoren fase berri bati ekitera gindoazela esan genuen eta langintza horretan bidelagun izan zitezkeen bazkide eta euskaltzaleei uztailaren 7ko bileran parte hartzeko gonbita luzatu genien Deialdiak erantzun ona jaso zuen, abiatu gara eta hurrengo hitzordua urriaren 7an izango da.

Uztailaren 7ko bileran parte hartu zuten lagunak. Argazkia: Goierriko Hitza.




Uztailaren 7ko bileran parte hartu zuten 43 lagunek talde-dinamiken bidez bi galdera erantzun zituzten: batetik, zertan aritu beharko ginatke Urretxu eta Zumarragan hemendik aurrera euskararen garapena lortzeko; eta bestetik, hori aurrera eramateko nola antolatu beharko ginatkeen. Batzarrean ekarpen

ugari jaso ziren, eta horri guztia zehazten joateko asmo tinkoa azaldu zen.

Honela, urriaren 7an beste urrats bat eman nahi dugu eta bilera bat egingo da uztailean hitz egindakoa errealitate bihurtzen joateko. Topaketak bi helburu nagusi izango ditu: batetik, euskararen normalizazioaren bidean eragin ere-

muak identifikatzea eta horietan eragiteko taldeak martxan jartzea; eta bestetik, egingo den lana koordinatzea eta eratzeko antolaketa molde berria denon artean adostea. Bilera, esan bezala, urriaren 7an izango da Zelai Arizti kultur etxean, 18.30etik 20.00etara. Animo, zain zaitugu!



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal



Badenak eta ez direnak


Bai, guk ere kolpe ederra hartu genuen Labeagatik pasa ginen aurreneko aldian. Eskerrak ez daukagun sekulako pepinoa eta gehiago flipatzeko autoak... nola esaten da... autoak apur bat jaitsi (?) ez ditugun. Ez dakigu ibilgailu motorizatuak herrien erdigunetik ateratzeko estrategia ote den. Helburu ona litzateke, herri erdiguneak oinezkoentzat aldarrikatzen jarraitzen baitugu, errepide erdian jarritako porlanezko mendiak —hasieran zeudenak behintzat— gehiegizkoak iruditzen zaizkigun arren. Auto sendoak izatea hobe. Eta gidari trebeak. Galdetu bestela Auzitegi Nazionalean (to gai-txiribuelta sinestezina eta irakurleon arreta bereganatzeko primeran etorri zaiguna!).

Irailaren hasieran, Adierazi Euskal Herria! izenpean bildutako hainbat astakilok eskubide zibilen aldeko badena altxa zuten, eta hura txikitu zuen autoan igo ziren epaileak. Handik gutxira beste

auto bat argitaratu zuten, dexente azkarragoa, aurreko astakiloen lagunek bigarren baden bat egin zutelako. Hura ere deuseztatu zuten epaileek. Astakilo burugogorrek baden berria altxatzen hasi ziren gero Bilboko Kafe Antzokian: 40 lagunek Euskal Herriaren eskubide zibilen aldeko mugimendua eratu zuten.

Baden handi samarra izango dela uste dugu, urduri jarri baititu asko. Alderdi politiko batzuek ez dute nahi euren motorra kalatu eta erdibidean geratzerik, badenaren erdian ez aurrera ez atzera. Horregatik daude Auzitegi Nazionaleko garrera begira, epaileak zer-nolako autoak tuneatzen ari diren jakiteko irrikaz. Gurpil handiko munstroak fabrikatzeko eskatu diete, badenak ahalik eta errazen gaintzeko. Ez dira konturatzen kaleko errealitatetik urrunduko egiten dituela horrek, eta baxuak agerian geratzen zaizkiela, itsu ez dagoen edonork ikusteko moduan.

Zer iritzi duzu Urretxuko Udalak ibilgailuei jarri dizkien oztopoei buruz?




Jose Ignacio Gomez



Oztopoak jartzearen aldekoa naiz, baina Udalak jarri dituenak altuegiak iruditzen zaizkit. Lehenengoz ikusi nituenean oraindik margotu gabe zeuden eta kolpe latza eman nion autoari. Dena den, jendea polikiago joan dadin ondo daude.

Aitor Agirrezabal



Oso gustura nago oztopo hauekin. Udala zoriondu nahi dut. Izan ere, lehen jendea ziztu bizian ibiltzen zen autoarekin eta hori oso arriskutsua zen. Batez ere haurrentzat eta adineko jendearentzat. Herritar gehienak ez daude oso gustura, baina ni bai.

Rosa Ruiz



Gehiegi ipini dituztelakoan nago, baina bakarren batzuk jartzearen aldekoa naiz. Hala ere, argi dago altuegiak direla eta auto batzuk arazoak dituztela.

Alicia Campos



Oinezkoentzat oso ondo daude. Izan ere, autoek ia erabat frenatu beharra dute. Kontua ez da asko jarri dituztela, altuegiak direla baizik. Bestela, konforme nago.

Gaia: Etxeko jostailuak biltzen ari naiz

Doinua: Arratsalde on eta musu bat

Leire Akizu



Hamairu urte, ireki dira
nerabeen leihatilak
eta malkotan urtzera nakar
jostailu zaharren pilak
Maddi panpinak, oraindik ditu
txirikorda kiribilak
irri ulerkor, mesfidati bat
egina dit neskatilak
beti ematen nizkion pozik
pa goxo, bero, hurbilak
orain ordea musu hobeak
jasotzen ditu mutilak.

Jostailu denak ikusi eta
jarri naiz bela trantzean
oroitzapenak etorri zaizkit
kutxa zarra irekitzean
momentu asko biziak ditut
hauek denekin funtsean
gorputz osoa dantzan jarri zait
berriz guztiak batzean
amak diosta toki gehiegi
hartzen dutela etxean
askozaz leku gehiago hartzen
dute nire bihotzean.

iritziz iritzi

Idoia Luzuriaga



Loak hartu ezinda, telebistaren aurrean

Programa hastera doa. Aurkezleak gau horretan bertan izango den gonbidatuaren berri ematen du. Artista bat da eta bizitzaren arlo ezberdinei buruz “pentsatzen duena” adieraziko duela dio aurkezleak. Galdera asko egiten dizkiote. Artistak batzuetan gustura erantzuten duela dirudi, besteetan deseroso puntu bat ageri da bere erantzunean. Bukatzen duenean artistak biluztu du bere izatea eta pertsona ageri da kamara aurrean. Niretzat erosogoa zen artista bezala ezagutzea, bere arteaz gozatzeko. Kate batzuk harago neska batek programa batera deitu du. Pantailan tipo batek karta sorta bat du eskuetan eta segurtasun handiz hitz egiten dio kamarari. “Galde iezadazu nahi duzuna”, esan du. Neskak bere etorkizunari buruz

galdetu dio, ea bikotekideren bat aurkituko duen ala ez. Tipoak ezetz erantzun dio, datozen bost urteetan bikotekiderik gabe jarraituko duela. Ondoren agurtu egin du. Agian neskak bere maitalea ezagutuko du bihar, baina aztiaren jarraibideak kontuan hartuta, egingo al dio jaramonik? Bi pertsona ageri dira pantailan aurrez aurre. Batak bestearekin orain artekoak zintzotasun osoz adierazi dizkiola azpimarratzen dio. Berak aurrez aurre esaten dituela gauzak, “egiak”. Besteak pentsakor dirudi. Badirudi halako batean honakoa botako diola: “Eta zuri nork esan dizu pentsatzen duzuna jakitea interesatzen zaidanik?” Baina ixilik jarraitu du, agian benetan pentsatzen duena esatea egokia ez dela jakin badakielako, “egia” eta “zintzoa” bada ere.



El siglo de las luces

Alejo Carpentier

Habanan, 1790. urte inguruan, hiru nerabe umezurtz gelditzen dira Kuba Kolonialeko etxetar batean. Hasierako nahigabe eta nahasmen sentsazio hori puskatuko dien bisita jasoko dute ustekabeen: Victor Hughes. Eta horrekin batera aire freskoa, jolasak, bizitza, frantziar iraultza eta ilustrazioko ideia berriak. Mundu berri bat espazioan eta pentsamenduan. Hortik aurrera, liburuak apasio-

natu egiten du, gozarazi, seduzitu, pertsonaiek izen bat dute, enkantu bat, baina batez ere indarra. Eta gu dagoeneko Karibe koloretsu eta oparoan gaude, gure pertsonaien balio eta abenturarako ausardiak astintzen gaituelarik, bertako paisaien argi, testura, usai, forma, egunsenti eta danbor hotsak milimetrikoki zelatatuz.

Oihane Zabaleta

Haizea garizumakoa

Ruper Ordorika

Disko sosegatuek bihotza goibeltzen duten ustea nahiko hedatuta dago, zoritxarrez. Baina kontrako eragina daukate; are gehiago lasaitasun hori distiraz betetzen denean. Deprimituta edo triste dagoen lagunari oparitu iezaiozu Ruper Ordorikaren azkeneko lana, eta maitasunez, betirako eskertuko dizu. Ziur. Apalategian bai ala bai eduki beharreko diskoa da, atera dituen beste guztiak bezala. Brooklyngo bere lagunekin,

Monder, Sverrison eta Wollesenekin grabatu zuen *Haizea Garizumakoa* iazko udan, eta sonoritatea primerakoa da. Gozagarria, soila, nortasun propioa duena. Popa, soula eta rocka gertuko izan ditu, baina bere erara moldatzen abila da. Kantua du lagun Ruperrek, baina hitzetan nabari da uneoro dabilela inguratzen dionari begira. Gogoeta interesgarriak egin ditu. Entzun ezazue.

Igor Susaeta



An education

Lone Scherfig

Dogma film bat egiten hasi zuen hamarkada Lone Scherfig daniarrak eta komedia erromantiko britainiar bat filmatzen bukatu du. 60ko hamarkadako Ingalaterran dago girotuta. Jenny gazteak Oxfordera joan behar du Unibertsitate ikasketak egitera. Ez dago bereziki emozionatuta, baina gurasoen nahia bete behar du. Joan aurretik, helduago den gizon dotore eta ikasi bat ezagutu du, David. Unibertsitatean ikasten ez

diren gauza asko irakatsiko dizkio. Peter Sarsgaardek jokatu du Daviden rola, baina protagonista nagusia Carey Mulligan da. Modako aktore bihurtu da eta dagoeneko askorekin konparatu dute. Lone Scherfig Europaren historian garrantzitsua izan zen une bateko gizartea aztertzen saiatzen da: burgesia diruduna, emakumearen askatasuna... Zineklubean urriaren 8an ikusgai.

ButaK 21 zineklub taldea



▼
 Gaztetxean antolatutako kontzertuak. Ezkerreko orrialdean: The Hot Dogs (Urretxu-Zumarraga, 2008-6-14) eta Taka-Taka (Urretxu-Zumarraga, 2009-9-21). Eskuineko orrialdean: Fly Shit (Bergara, 2009-1-3), Bernardo Corleone (Idiazabal, 2008-12-26), Capsula (Argentina-Bilbo, 2008-6-15), Rabia Positiva (Herrialde Katalanak, 2009-1-3), Do+Rüdiger (Bera-Baiona, 2008-12-27), The Hot Dogs eta Calcetines y Cachetes (Bizkaia, 2007-5-20).

ZUGA



zuek bai jakin!

Urrezko Domina urrezko txistularientzat

Urretxuko Udalak Urrezko Domina eman zien jaietan Juan Manuel Kerejeta, Jose Jabier Larrañaga eta Jose Mari Lasari. Hiru lagun hauek sekulako lana egin dute txistulari taldean eta herriaren esker ona ondo merezia dute. Urte asko daramatzate elkarrekin eta euren arteko harremanaz mintzatu gara beraiekin.



Aurkeztu zeuen buruak, mesedez.

Juan Manuel Kerejeta (J.M.K.): Juan Manuel Kerejeta, *Atxunberri*, dut izena. 59 urte ditut, 60 egiteko. Mekanikoa izan nintzen, baina duela bost urte istripua izan nuen eta erretirata nago. Alaba bakarra dut eta baita biloba ere.

Jose Jabier Larrañaga (J.J.L.): Ni Jose Jabier Larrañaga *Jostenka* naiz. *Jostenka* ezizena da, baina hala ezagutzen naute gehienek. Gaztetan Joseja deitzen zidaten eta, halako batean, batek konfundituta *Jostenka* esan zuen. Batzuei grazia egin zien eta horrekin gelditu nintzen. Hasieran haserretu egiten nintzen, baina alper-alperrik zen. 60 urte ditut eta bihar bertan (irailaren 15ean) 61 egingo ditut. Iaz langabezian gelditu nintzen eta dagoeneko ez naiz gehiago lanera joango. Ni ere, Juan Manuel bezala, mekanikoa izan naiz. 43 urte eman ditut horretan lanean.

Jose Mari Lasa (J.M.L.): 58 urte ditut.

Kutxan lan egin nuen, 33 urtetan. Ni ere erretiratuta nago.

Hirurak erretiratuta zaudete, beraz.

J.J.L.: Joxe Marik apustua irabazi zidan, gainera. Ni baino lehenago erretiratuko zela esan zuen eta asmatu egin zuen. Diruaren sobrea Juan Manuelek eduki zuen etxean gordeta.

J.M.K.: Ez nuen uste Jose Marik irabaziko zuenik!

J.M.L.: Nik bai, ordea! 10 zentimo jokatu genituen, baina depositatuta!

Lagun onak zaretela nabaria da. Noiztik ezagutzen duzue elkar?

J.M.L.: Txiki-txikitatik.

J.M.K.: Bi plazakoak eta bestea Labeagakoa...

J.J.L.: Jose Manuel txiki-txikitan hasi zen txistu taldean.

J.M.K.: Abesbatzan ere bai. Jose Marirekin abesten nuen. Garai hartan beharko joan parrokiako abesbatzan abestera!

Zu izan zinen, beraz, txistulari taldean hasten lehen.

J.M.K.: Bai. Ramon Esnaolarekin hasi nintzen. Garai hartan Inazio Barrio zen danbor jolea, baina orkestrarekin ere jotzen zuen eta askotan danbor jolerik gabe gelditzen ziren. Ramon Esnaolak bere etxera joateko esan zidan eta hala ikasi nuen danborra jotzen. Danborra jo dut beti. Argazki batean txistuarekin azaltzen naiz, baina tranpa egin nuen: Santiren omenaldian txistua hartu nuen, baina argazkirako bakarrik. Ez dakit txistua jotzen.

Eta zuek nolatan hasi zineten txistua jotzen?

J.J.L.: Arreba hasi zen, baina aspertu egin zen. Orduan, beharbaba nik ere



Lasa, Kerejeta eta Larrañaga, omenaldian, euren emazteekin. Argazkia: Gotzon Aranburu.

txistua jotzen ikasiko nuela esan nuen etxean. Gurasoek sekulako errieta egin zidaten: "hasi bai, baina ez duzu ezer egiten...". Santirekin hasi nintzen, 13 urte nituela, eta 14rekin lehen kalejira egin nuen: 1963an, taldea sortu eta hiru urtera. Harrezkero, hemen nabil bueltaka. Gustura. Lagun asko egin ditut eta gauza asko ikusi ere bai.

J.M.K.: Garai hartan txistulari taldean jo ahal izatea oparia zen. Gure txangoak Santa Barbarara izaten ziren. Auto oso gutxi zeuden eta herritik ez ginen ateratzen. Noizean behin Donostiara trenez eta kito. Txistulari taldearekin toki askotara joaten ginen eta hura guretzat sari-rik ederrena zen: egunpasa joan, bazkaldu... Hiru eguneko txangoak ere egin genituen. Egunero entsegatzen genuen eta hiru eguneko txangoa egin aurretik jende gehiago etortzen zen entseguetara.

Nolatan hasi zinen zu txistua jotzen, Jose Mari?

J.M.L.: Beste mutiko batzuk txistua jotzen ikusten nituen eta nik ere jo nahi nuen, baina etxean ez zidaten hasten utzi Batxilergoa bukatu arte. Batxilergoa 14 urterekin bukatu nuen eta berehala txistua jotzen hasi nintzen. 67ko Korpus egunean jo nuen lehen aldiz taldearekin. Tiple taldean ere lehenago hasi nahi izan nuen, baina On Santiagok ez zidan utzi txikia nintzelako. Musika beti gustatu zait. Txistua jotzen Santirekin ikasi nuen. Gure semearen irakaslea ere bera izan zen. Bi belaunadi, gutxienez, ezagutu zituen. Santiren lana izugarria izan zen eta biok berarekin ikasi genuela esatea gustatzen zait. Taldearen arima izan zen. Ezkondu zenean Ormaiztegira joan zen eta urte haietan Jostenkak hartu zuen ardura, baina orduan ere ez zuen taldea utzi.

Zuen seme-alabak ere txistulari taldeko kideak al dira?

J.M.K.: Alabak 7-8 urtetan jo zuen txistua. Bilbora ikastera joan zenean utzi zuen txistua.

J.J.L.: Nire semeak ere jo zuen. Danborra eta txistua jo zituen, baina kalejiretan ez zuela joko esan zidan. Txistua jotzen ikasten ari zela danborra jotzen hasi zen Kerejetarekin. Danborrarekin kalejira pare batean parte hartu zuen, baina txistuarekin ez. Derrigortzea alferrik denez...

Asko aldatu al dira txistua eta Urretxuko taldea 50 urte hauetan?


J.M.L.: Gizartea asko aldatu da eta txistua teknikoki ere bai. Gu txistua jotzen hasi ginen garaian ez zegoen ikasteko aukera handirik eta jende asko 14 urterekin hasten zen lanean. Ez zegoen musika eskolarik, ez zegoen ingelesa ikasi beharrik... Jendea egunero etortzen zen entseatzerara. Egun oso zaila da denok elkartzea eta, gainera, taldeko gehienok 10-15 urte daramatzagu. Hutsune bat egon da eta hori nabaritzen ari gara. Duela bizpahiru urte 6-7 lagun etorri ziren eta oraindik berde samar daude.

J.M.K.: Guk, egunero entseiatzeaz gain, igandeetan goizean eta arratsaldean jotzen genuen. Arratsaldean dantza suelta izaten zen pilotalekuan.

J.M.L.: Garai hartan telebistarik ere ez zegoen. Urretxun lau telebista zeuden. Gure etxean 1966an ekarriko genuen. Gizartea oso ezberdina zen. Egun osoa kalean ematen genuen.

J.M.K.: Horrekin guztiarekin lotuta, Donostiara joan ginen batean Migel Lasa eta biok alde batetik joan ginen eta gainontzeko txistulariak bestetik: gora

Txistulari taldeko kideekin eta Santi Gutierrez zenaren irudiarekin, 2003ko Santa Anastasia jaietan.



begira gindoazen, hango telebista antena kopuruak txundituta, nik txistua entzuten nuen, berak danborra...

Nola ikusten duzue txistuaren eta Urretxuko taldearen etorkizuna?

J.M.L.: Ez naiz oso baikorra. Gaur egungo bizimoduak eta globalizazioak ez dute asko laguntzen, baina euskaldunak egoskor samarrak izan gara orain arte eta horri esker eutsi diogu. Saiatu egin beharko dugu. Haizea ez dugu alde izango, baina eutsiko diogula uste dut. Esan bezala, lehen txistua herritik kanpora joateko aukera bakarra zen. Egungo gazteak, berriz, noiznahi joan daitezke beste herri batzuetara txistua jotzeko beharrik gabe. Alde horretatik txistuak erakargarritasuna galdu du, baina euskal kulturarekin lotuta dago eta gazteen artean kontzientzia piztea espero dut. Bestalde, errepertorioa berritu daiteke, baina etorkizuna ez da erraza izango.

J.M.K.: Lagun askori irakatsi diet danborra jotzen, baina orain gutxi gaude. Ea nirekin ikasi zuten horiek berriro azaltzen diren.

Zuek behintzat luzaroan jarraitzeko asmoa izango duzue...

J.M.L.: Beste 200 bat urte gutxienez bakoitzak... Gazteek gu botatzeko ahalgina egin dutela uste dut, dominekin eta halakoekin, baina ez gaituzte horren erraz botako...

Zer diozue dominaren kontuaz?

J.M.L.: Niri ez zitzaidan ekimena gehiegi gustatu eta argi eta garbi esan nien. Aurten taldearen 50. urteurrena ospatzen ari gara eta ez zen inor destakatu behar. Ezer destakatzekotan, Santi Gutierrezen eta Ramon Esnaolaren lana goraiatu behar zen.

Dena den, harro egoteko modukoa da.

J.M.L.: Gure taldeko gazteek asmorik onenarekin egindako eskaera da eta

Urretxuko Udalak onartu egin zuen. Eskertzekoa da.

Zer dira zuentzat txistua, danborra eta Urretxuko txistulari taldea?

J.M.L.: Lagun bati txistua lagun handi bat dela esan nion: gutxi eskatu eta asko ematen duena. Egun zoragarri eta lagun asko eman dizkigu. Baita bazter zoragarri asko ezagutzeko aukera ere.

Dena den, beste zaletasunen bat ere izango duzu.

J.M.L.: Aurten oso lanpetuta izan gara, 50. urteurreneko ekitaldiak zirela eta. Bi aukera genituen: bazkaria eta parranda bakarrik egitea edo zer edo zer gehiago egitea. Bigarren bide horretatik jo dugu eta lan handi samarra hartu dugu. Dena den, ni behintzat oso gustura nago egindako lanarekin. Egindakoak hor geldituko dira. Datorren urtea lasaiagoa izango da.

Denbora libre asko izango duzue.

Erabaki al duzue zer egingo duzuen?

J.M.L.: Kirola egitea gustatzen zait: mendian ibiltzea, bizikletan ibiltzea... Musika, paper zaharrak, euskara eta euskal kultura ere atsegin ditut eta etorkizunean alor horietan lan egin nahi dut. Burua gehiegi estutu gabe eta orain arte baino patsada handiagoz.

J.J.L.: Niri ibiltzea gustatzen zait. Astebururo joaten naiz mendira Legazpiko koadrila batekin.

J.M.K.: Biloba zaindu, mendira joan eta etxeko lanak egin. Umea zaintzearena orain arte eduki dudana ederrera da.

Zer esango zenukete batetik besteaz?

J.M.K.: Zorte handia izan dut. Lagun handiak eta jatorrak dira.

J.J.L.: Bai, elkarrekin ondo moldatu gara beti.

J.M.L.: Taldetik pasatu garen guztiok beti

Urepelen, 1998an.



aipatzen duguna taldeko giro jatorra da. Bi hauek aportazio handia egiten dute.

Bukatzeko, beste zer edo zer aipatu nahi al duzue?

J.M.L.: Lehen txistuak zer eman digun

Joxe Mari Lasa:

“Taldetik pasatu garen guztiok beti aipatzen duguna taldeko giro jatorra da”

galdetu diguzu eta, une alaiez gain, une hunkigarriak ere eman dizkigu. Musika alaitasuna zabaltzeko dela esaten dugu, baina tristezia azaltzeko ere balio du. Gernikan, 1997an, diskoa grabatu zen

bonbardaketaren 60. urteurrena zela eta. Txistulari pila batek eta abesbatza handi batzuek parte hartu genuen eta *Gernika* martxa funebrea jo genuen. Oso hunkigarria izan zen. Bestalde, txistuari esker Andaluziako *Salve Rociera* hango flauta joleekin jotzeko aukera izan dugu, Bartzelonan *La santa espina* sardana txistuarekin jotzeko aukera izan dugu, Donibane Lohitzunen *Ravelen Boleroa* jo genuen, Bartzelonako eta Madrileko futbol zelaietan txistua jo dut Realari anima-tzen... Une horiek oso bereziak izan dira eta hor gelditu dira betiko.

J.M.K.: Nik beti esan dut zorte txarra izan dudala, txistua danborra baino ero-soagoa baita eramateko. Baina behin zezen-plaza baten izan ginen eta danbor gainean eseri nintzen. Orduko hartan danborra jotzea onerako izan zen!

Aitor Andola: ACB ligak ez du sekreturik urretxuar honentzat

Saskibaloia modan dago eta euskal taldeen liga, ACB, munduko indartsuenetakoa da. Lehiaketa honek jarraitzaile asko ditu, baina gutxi dira Aitor Andola bezain fide-lak. ACB ligak ez du sekreturik 15 urteko gazte honentzat, talde gehienen kantxak bisitatu baititu eta jokalaria onenekin argazkiak atera baititu. Real Madrileko Sergio Llullek bakarrik ihes egin dio. Harrapatzen duenean NBArako salto egingo du.

Ricky Rubio Bartzelona taldeko jokalariaekin.



Aitor Andolak saskibaloia odolean daroma, bere aita Jose Mari ere zaletua baita eta Goierri taldean jokatu baitzuen. Umetan telebistan ikusten zituen partida gehienak, baina azken hiru urteetan asko eta asko zuzenean ikusi ditu eta jokalaria onenak ezagutu ditu. Joseba Urdangarin osabarekin eta Jon Idiakez Rooney lehengusuarekin joaten da.

Andolak talde ezberdinetako 100 jokalaria baino gehiagorekin atera ditu argazkiak jada: Bartzelona, Real Madril, Joventut, Caja Canarias, Fuenlabrada eta, nola ez, hiru euskal taldeak. Urretxuarra aurtengo liga irabazi duen Caja Laboral-Baskonia taldearen jarraitzailea da.

Andolak saskibaloia jokariengana hurbiltzea erraza dela dio. "Oso umilak dira eta eurengana gerturatzea oso erraza da. Futbolariekin alderatuz oso ezberdinak dira. Eskertzekoa da gurekin hitz egiteko eta argazkiak ateratzeko inongo eragozpenik ez jartzea. Zinpeko zaintzaileek jokalariek baino askoz ere zailtasun


gehiago jartzen dizkigute. Baten bati urrutitik deitu diogu eta ez entzunarena egin beharrean guregana etorri da”.

Eurekin argazkiak atera dituztenetako batzuk mundu mailako izarrak direla aipatu behar da. “Gehien hunkitu gaituztenak espainiar selekziokoak dira. Munduko eta Europako txapeldunak eta Olinpiar Jokoetako azpitxapeldunak direla kontuan izan behar da. Jorge Garbajosa, Felipe Reyes, Ricky Rubio eta Juan Carlos Navarro, adibidez, mundu mailako izarrak dira eta ez digute inongo eragozpenik jarri eurekin argazkia ateratzea eskatu diegunean. Maila horretako futbolariengana heltzea ezinezkoa da”, azaldu du.

Dena den, hirukote hau geldituko duenik ez da jaio oraindik: Cristiano Ronaldori argazki bat ateratzea lortu zuten! “Santiago Bernabeu estadioaren kanpoaldean geunden, milaka pertsona zeuden eta segurtasun neurriak izugarriak ziren. Jokalariengana hurbiltzea ezinezkoa izango zela zirudien, baina Jonek ideia bikaina izan zuen: jendearengandik urrundu eta semaforo baten ondoan jarri ginen. Cristiano Ronaldori gorri jarri zitzaion eta argazkia atera ahal izan genion. Oso gertutik atera genion. Pentsa... grano bat ikusten zaiol! Gizatiarra da nonbait!”, aipatu du txantxetan Urretxuko gazteak.

Andola, Urdangarin eta Ildiakezek pasadizo gehiago dituzte kontatzeko. Grazia gehien egiten diena Ricky Rubiorekin lotuta dago. “Barakaldoko BECen izan ginen berarekin. Kantxan ez genuen lortu berarengana hurbiltzea eta galerietara joan ginen. Aurkitu genuenean, Joni komunera joateko gogoia piztu zitzaion. Ricky Rubiok Joni komunitetik irten arte itxaron zuen!

Pablo Priggioni eta Felipe Reyes Real Madril taldeko jokalariek.



Gainera, ondoren Navarro eta Basileri deitu zien”, oroitzen du.

Donostiako zaintzaileek Bartzelonako izar gazteak baino eragozpen gehiago jarri zizkieten. “Ordubete eman genuen zain, baina ez ziguten pasatzen utzi. Autorako bidea hartu genuen eta Barbour ikusi genuen. Bere autoa gelditu genuen eta jaitsi egin zen. Handik minutu batera Pankok gauza berbera egin zuen”.

Tematiak izateaz gain, zortea dute. “Behin, Amaran, jatetxe baten bila genbiltzan eta motxila bat zeraman mutil gazte bat gelditu genuen. Andaluziar doinuarekin erantzun zigun... Rai zen, Lagun Aro taldeko basea!”. Dena den, beti ez dute zortea izan. “Sergio Llullekin argazkia ateratzea ez dugu lortu oraindik: bitan deitu diogu eta bietan ez entzunarena egin du”. Jokalari hauekin guztiakin egon ahal izateko saskibaloia kantxa nagusiak bisitatu dituzte. “Saskibaloia tenplua Gasteizko Buesa Arena da, baina Fuenlabradan bizitakoa ahaztezina izan zen. Bere zalegoa sekulakoa da. 60 urteko emakumeek danborra nola jotzen duten ikusgarria da... Gainera, oso adeitsuak izan ziren gurekin:

lehen ilaran jarri gintuzten, zuzendaritza-batzordeko kide batek klubaren etorkizuna diren bi afrikar gazte aurkeztu zizkigun, aldageletara sartzen utzi ziguten eta Luis Guil entrenatzaileak gurekin argazkia atera zuen kaleratua izan baino minutu batzuk lehenago. Ondoren Joventut taldearen hotelera joan ginen eta jokalaria guztiek gurekin argazkiak atera zituzten”.

Euren azken biktimak Harlem Globetrotters taldeko jokalaria izan dira. Euretako batek eskumuturrekoa oparitu zien, gainera. Estatu Batuetako saskibaloiarekin lehen hartueman izan ondoren, NBAra salto egiteko prest daude. “Hau guztia lagun batzuen laguntzari esker egin ahal izan dugu. Juan Carlos Gonzalez Gontxalek, adibidez, Tel Aviveko Maccabi taldeko jokalariek sinatutako kamiseta lortu behar digu. Hurrengo helburua Estatu Batuetara joatea da. Osabaren lagun batek, Bruce Storms du izena, NBA ligako hiru partida ikusteko sarrerak lortu behar dizkigu. Jack Nicholson aktorearen ondoan eseriko garenik edo Pau Gasolekin egongo garenik ez digu ziurta- tu: hori gure esku”.

Ander Txintxurreta: Baskonia taldeko euskalduna

Maiatzen Iker Zabaleta txirrindulariarekin hitz egin genuen eta ekainean Alberto Alejandro futbolariarekin. Azken bi hamarkadetan puntaren puntara iristeko zorian izan diren kirolariarekin bukatzeko Ander Txintxurreta saskibaloia jokalariekin izan gara. 90eko hamarkada hasieran ilusioa piztu zuen eta herritarrek gertutik jarraitu zuten, baina belauneko lesioek kirola uztera behartu zuten.

La Salle-Legazpi ikastetxean



Nolatan zaletu zinen?

Ikastolan, 12-13 urte bete arte, gainontzeko guztiek bezala, futbolekin jokatu nuen. Baina auzoko lagunekin saskibaloian jokatzeko nuen. Lagun batzuek Goierri taldean jokatzeko zuten eta 13 urterekin haiengana jo nuen. Urtebete eman nuen Goierri. Denboraldi amaieran proba batzuk egon ziren eta horien ondoren Donostiatik eta Gasteiztik deitu zidaten. Askatuak taldera joatekoak nintzen, baina Gasteiztik deitu zidatenean bertara joatea erabaki nuen. 14 urte nituen.

Nola gogoratzen dituzu lehen urte haiek?

Iban Rodriguez, Rufino, Joseba Zaldua... izan ziren nire taldekideak Goierri taldean. Beti gustatu izan zait gehiago jokatzeko ikustea baino. Egun ere ez dut saskibaloia gertutik jarrait-

zen. Partida garrantzitsuak bakarrik ikusten ditut. Nire idolo bakarra Michael Jordan izan da.

Zein postutan jokatzen zenuen?

Goierriin pibot postuan jarri ninduten, baina Gasteizen eskolta jarri ninduten eta aurrerantzean postu horretan jokatu nuen.

Zer moduz moldatu zinen Gasteizen?

Taldeak harrera familia batzuk zituen Gasteiztik kanpoko jokalarientzat eta lehen hiru urteak familia batekin eman nituen. Lehen denoboraldian astebururo etxera itzuli nintzen, baina Gasteizen lagunak egin nituen eta astero etxera etortzeari utzi nion.

Gogorra egin al zitzaizun Gasteizko bizimodura ohitzea?

Etxetik irten nintzen lehen aldia zen eta lehen urtean gurasoak eta lagunak faltan bota nituen. Hurrengo urteetan, berriz, oso ondo moldatu nintzen. Izan ere, Gasteiz hiri txikia da eta Zumarragatik gertu dago.

Zeintzuk izan ziren zure lehen taldekideak?

Nire lehen taldekideak ez ziren lehen taldera iritsi, baina ondorengoak bai. Beti ni baino zaharragoekin jokatu nuen. Bigarren urtean junior mailako Espainiako txapelketa irabazi genuen. Taldean David Sala, Marcelo Nicola, Walter Guiñazu, Iñaki Gomez eta Jorge Garcia zeuden, besteak beste. Real Madrilen David Peral, Lasa, Esteller eta Santos zeudela gogoratzen dut. Txapelketa Bilbon jokatu zen eta erraz irabazi genuen, talde oso indartsua baikenuen.

Gutxira lehen taldearekin entrenatzen hasi zinen.

Hala da. 17 urte bete gabe nituen orain-

dik lehen taldearekin bidaiatzen hasi nintzenean. Salto egin behar nuela zirudien, baina arazoak hasi ziren: belaunak oso gaizki nituen, batez ere ezkerrekoa, eta 17 urterekin lehen ebakun-tza izan nuen. Minarekin jarraitu nuen eta 19 urterekin berriro egin zidaten ebakuntza. Eskuineko belaunean ere arazoak izan nituen eta 23 urterekin saskibaloia utzi nuen.

Zer dela eta uste duzu izan zenituela arazo horiek?

Gaztetan asko jokatu eta asko entrenatu nuen, askotan porlan gainean. Mina

“Lehen taldera salto

egin behar nuela

zirudien, baina arazoak

hasi ziren: belaunak

oso gaizki nituen”

nuela esaten nuen, baina ez zidaten jaramon handirik egiten. Egun ez zen halakorik gertatuko.

Baskonian al zeunden oraindik saskibaloia utzi zenuenean?

Ez. Azken bi denboraldiak Arrasaten eta Burgosen eman nituen. Pentsa zein zen nire egoera: Burgosetik Gasteizera itzultzean Mirandan gelditu beharra nuen, belauneko mina zela eta. Astelehen, astearte eta asteazkenean atsedean hartzen nuen; ostegun eta ostiralean apur bat entrenatzen nuen eta asteburuan partida jokatzen nuen. Oso gaizki nengoen eta saskibaloia uztea erabaki nuen.

Gogorra izan al zen saskibaloia uztea?

Bai, proiektzio handia bainuen. Beti ni baino zaharragoekin jokatu nuen eta dena oso ondo zihoan. Ebakuntzen kontua eta saskibaloia utzi beharra gogorra izan zen eta bolada batean izorratuta egon nintzen. Zorionez, buelta eman nion eta aurrera egin nuen.

Goi mailako jokalariekin entrenatzeko aukera izan zenuen.

Lehen taldearen aldagelan sartu nintzenean mutikoa nintzen oraindik. Garai hartan Mendizorrotzan jokatzen genuen oraindik. Pablo Laso, Ortega, Sibilio, Ramon Rivas eta Larry Micheaux zeuden taldean, besteak beste. Gasteizekoekin, Lasorekin eta Ortégarekin, egin nuen harremanik sendoena. Perasovic ere oso jatorra zen. Gazteekin oso ondo portatzen zen. Amerikarrak, berriz, euren kasa ibiltzen ziren.

Ez zenuen lehen taldearekin asko jokatzeo aukerarik izan.

Ez, ez... Taldea osatzeko eramaten ninduten. Hiruzpalau partidatan bakarrik parte hartu nuen. Baskoniaren Europa mailako lehen finalean, Lausannen, izan nintzen.

Zer egin duzu saskibaloia utzi zenuenetik?

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak ikasteko asmoa nuen. Probak gainditu ondoren, Fisioterapia egitea erabaki nuen. Estatu Batuetara joan nintzen, bi helbururekin: Miami mediku bat ikusteko eta Fisioterapia ikasteko. Nire helburua osatzea eta beka batekin bertako talde batean jokatzea zen. Baina belauna ez zen osatu eta itzuli nintzene-



rako ikasturtea hasita zegoen. Fisioterapia ikasten hasi nintzenerako 25 urte nituen. Bost urte eman nituen Madrilen. Urte oso onak izan ziren. Itzuli nintzenez Mundaiz kirol gunean hasi

nintzen lanean. Handik hilabetera Baskoniakoek deitu zidaten eta medikuari laguntzea eskani zidaten. Ikasteko eta saskibaloia munduan jarraitzeko aukera ona iruditu zitzaidan. Donostiako lana utzi ondoren, aurrekontu arazoak zituztela eta nire postua kendu zutela esan zidaten. Dezente haserretu nintzen. Hala, lagun baten bitartez, Iruñako enpresa batentzat komertzial lana egiteko aukera suertatu zen. Lauzpabost urte eman ditut horretan, lehenengo Gasteizen eta gero Valentzian. Lan horretaz nekatu nintzen eta itzuli egin naiz. Fisioterapian jardun nahi dut eta horretarako berriro egunean jarri beharra dut. Duela urtebete Osakidetzako oposizioak gainditu nituen, baina hori epe luzeko egitasmoa da.

Non bizi zara egun?

Zumarragara itzuli naiz, baina oraindik ez dut erabaki zer egingo dudana: ikasi eta hausnartu ondoren erabakiko dut.

“Michael Jordan

historiako onena da eta

izango da. LeBron James

eta Kobe Bryant ez dira

hurbildu ere egiten”

Asteburuetan Gasteizera joaten naiz, bertan baititut lagun guztiak. Urte asko eman ditut Zumarragatik kanpo eta hemengo jendearekin nuen harremana galdu egin dut.

Saskibaloia ez duzula gertutik jarrai-

tzen esan duzu.

Liga bukaera, Baskoniaren kanporaketak... bakarrik ikusten ditut. Futbola ikustea ere ez dut asko atsegin, baina Real Madrilen eta Bartzelonaren arteko partidak eta Txapelaldun Ligako kanporaketak ikusten ditut.

Lagunarteko partidak jokatzen al dituzu?

Ez. Baskoniako taldekide ohiak noizean behin elkartu egiten dira jokatzeko eta behin nik ere parte hartu nuen, baina hasi eta hamar minutura ia belauna txikitu nuen berriro. Garai batean egiten nituenak egiten saiatu nintzen, baina dagoeneko ezin dut halakorik egin: belaunak oso gaizki ditut eta batere entrenatu gabe astakeriak egitea ez da ona. Hori dela eta, gehiagotan ez parte hartzea erabaki nuen.

Egun beste zaletasun batzuk dituzu, beraz.

Noizean behin partidaren bat ikusi, musika kontzertuetara joan, lagunekin gelditu... beste munduko ezer ere ez.

Nola ikusten duzu Baskonia?

Urtero aldaketa asko egiten dituzte eta ondo lan egiten dute, beti goian baitaude. Dena den, urtero Real Madril, Bartzelona, Olympiakos eta gainontze-koen aurka borrokatzea oso zaila da.

Garai batean Jordan gustuko zenuela esan duzu. Eta egun?

Nire ustez historiako onena da eta izango da. LeBron James eta Kobe Bryant ez dira hurbildu ere egiten. Sekula ez naiz mitozalea izan eta egungo jokalarien artean ez dut inor bereziki gustuko. Bat esatearren, Espainiako selekzioaren artean, Gasolen faltan, onena Navarro dela uste dut.



Herri Aldizkaria Otamotz

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!


ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...
- Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Urtean 12 euro.
- Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:
Zintzo-Mintzo elkarte
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urrretxu
- Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
otamotz@otamotz.com

<input type="checkbox"/>	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
<input type="checkbox"/>	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	



Alex Areizaga

Informatika

OpenOffice

Software librea gure bizitzetan geroz eta ulergarriagoa eta errazagoa suertatzen ari zaigun honetan, bada geroz eta gehiagok erabiltzen degun erreminta bat: OpenOffice. Microsoft Officeren alternatiba da eta Word, Excel eta Power Pointen pareko programak eskaintzen ditu. Saretik doan jaitsi daiteke, <http://www.openoffice.org> helbidetik. Testu prozesatzailea lehen aldiz erabiltzean kontuan izan behar da dokumentua defektuz .odt formatuan gordetzen duela, .doc formatuan gorde beharko dugu hurrengo batean Microsoften testu prozesatzailearekin ireki nahi badugu.



Miren Arrieta

Osasuna

Barizeak

Gizonezkoek nahiz emakumezkoek pairatu ditzaketen zain dilatazioak dira eta gorputzeko edozein ataletan ager daitezkeen arren, ohikoena hanketan agertzea da. Batez ere zutik ordu asko pasatzen dituzten pertsonetan agertzen dira, batik bat geldi egoten direnetan, baina eragin genetikoa dagoenik ezin dugu ukatu. Funtsean odolak berriz ere bihotzera bueltatzeko indar gutxi duela eta zainetan biltzen joaten da beren ibilbidean poltsatxo urdinskak azalarazten dituztelarik. Hauek tratatzeko ezinbestekoa da egunero ibiltzea, ur hotzarekin hankei dutxa hotzak ematea eta eserita gaudenean hankak alturan mantentzea. Neurri hauez gain, zutik ordu asko pasatzen dituzten pertsonentzat oso mesedegarria izaten da deskantsuko galterdiak erabiltzea eta beharrezkoa denean tratamendu medikoa ere har daiteke. Kontuan izan neurri hauek guztiak barizeak ekiditeko ere erabili daitezkeela eta askotan hori izan daitekeela erremediorik onena. Beste ezerk ez badu funtzionatzen, azken aukera kirurgia da.

Telephone box

Carlton Miniot, 2010-08-08

Dagokionari.

Gainezka daukagu zelaia: azalerak dituen metro koadroak baino kabina gehiago ditu kasik gainean. Eta zerbait erabaki beharrean gaude. Erabaki baino gehiago esango nuke. Erabaki eta egin: zelai gorri honetan ezin dut telefono-kabina gehiago landatu!

Hasieran polita zen. Iristen ziren bateko eta besteko, irla osokoak. Regent Streetekoak berritu behar dituztela, badakartzate kamioi batean hiru bat. Cavendish Squaren berria jarri dutela, hara non datorren beste kamioi bat. Southamptoneko bat ordezkatzekotan direla, hegoaldeetik iparrera kamioian dakarte. Bamburgekoa kentzea erabaki dutela, ekarri hura ere hona, hemen guztiak gustura hartzen ditugu eta! Eta horrela zelaia bete arte, ez da telefono dei bakarra ere sartzen.

Hasierako urte luzeetan, artzainak artaldea bezala eza gutzen nituen guztiak. Poliki-poliki nik neuk sartzen nituen zelaia erraza zen. Batagatik edo besteagatik, kope-ta beltza zutelako, begi okerra, buztana motza... ardiek bezala, telefono kabina guztiek zuten bereizgarriaren bat. Margoaren kolore gorria eta haren aldaerak; egituraren zorrotasuna edo borobiltasuna; kabinaren beraren tamaina, zifra gutxiko erreferentzia-zenbakia, gogoratze-ko modukoa; kabina bakoitzaren barruko usaina... Eta idatzita zekarren istorioa.

Kabinen hilerrira iristen lehenengoa honela identifikatu nuen: *Gerezi-gorria-06929*. Hala zioen idatzita zekarren izkribuak: "Maite dudanak ez nau maite. Eta zuk?". Angelu zorrotza zuen esaldiak. Izkina gehiegi gauza onerako. Labana handi samar batekin idatzia zela ematen zuen. Aurikularrean bertan. Jakin nuen zergatik: modu horretan, kabinatik dei bat egiten zuten guztiek luzatzen zioten eskua 06929an sos deia jarri zuenari.

Sagar-gorria-zenbakia ezin ondo bereizi-atearen azpialdea erabat higatua. Horrela identifikatzen nuenak istorio

polita zuen atzean. "Ni zu banintz zenbaki honetara deituko nuke". Eta azpian numeroa. Irakurri nuen lehenengo aldi beldurra sorrarazi zidan, larrialdiak sortu eta gero erremedioa jarri nahi dien norbaitek idatzi zuela pentsatuta. Mehatxu trazak hartu nizekion. Bigarren aldi b, saiatu nintzen irakurketa positiboagoa egiten. Izan ere, ez nuen egunkarietan kabina hura zetorren kalean ez auzoan gertatutako albiste txarrik topatu. Eta hirugarrena, telefono kabinen hilerrira auzo bereko beste kabina bat etorri zenean egin nuen. Hark ere mezu bera zuen "Ni zu banintz zenbaki honetara deituko nuke". Eta azpian beste numero bat.

Ezin izan nion kuriositateari eutsi, bi kabinak egondako auzora joan nintzen. Ikusi nuen hilerrian nituen kabina haien ordezkoez ere mezu bera zutela berriz, letra berdinez idatzita bai bata eta bai bestea. Zain egon nintzen nor sartzen zen ikusteko, batean eta bestean. Eta orain arte maitasun istorioa isilean eduki badut, ez dut orain aireratuko. Soil-soilik zera esan dezaket: auzo berean bizitzan elkar ikusi ezin zuten maitaleen istorio sekretua zegoen atzean. Kabina batetik bestera egiten zioten dei elkarri.

Beste hau ere oso gogoan dut: *Alde batean, hemezortzi beiratxotatik zazpi hautsita-koroa tatxatuta-06323*. "Gorroto haut Nataschal!". Aerosolez idatzia zegoen kasu honetan. Barrutik, beiratxoak apurtutako aldean eta apurtu gabeko beiratxoetan, hain justu. Alaba baten garrasia zen.

Beste hau eskutitzaren amaierarako utzi dut: "Letrak hil dira". Kaligrafia garbi eta dotorez atean bertan. Kabinan sartzeraz zihozten guztiei heriotzaren abisua ematen zien. Telefono kabina gorrien hilerriko sarreran utzi nuen, datozen kabina guztiei harrera emateko.

Amaia Artolazabal Amilleta

www.otamotz.com/index.php Web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Eider Gabilondo

Eider Gabilondo urretxuarrak 23 urte ditu eta Aldundiaren 'Altuning pro Gipuzkoa' sarietako bat irabazi du. Sariketa hau atzerrian ikasi duten unibertsitarietara zuzendua dago eta helburua beste lurralde batzuetako esperientziak biltzea da. Gabilondok Suediako gizarte politikei buruzko lana aurkeztu zuen. Urretxuarrak ikastolan eta lizeoan egin zituen oinarrizko ikasketak eta ondoren Deustuko Unibertsitatean joan zen Enpresa-zientziak ikastera. Beste herrialde batzuk ezagutzeko gustuko du eta udaberria Suedian eman zuen.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Ezer berezirik ez. Ez nuen ezertarako bokaziorik.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Tokiak ezagutzeko eta lagunekin egotea.

Bizitzeko toki bat?

Munduan bizitzeko moduko toki asko daude, baina Urretxun ondo gaude.

Nora joango zinateke gustura oraintxe bertan?

San Franciscora, nahiz eta duela gutxi izan nintzen. Bestalde, jendea Suedia eta Norvegia bisitatzerako eramango nuke.

Gehien gustatu zaizun txokoa?

Norvegiako fiordoak.

Zer da Suedian gehien gustatu zaizuna?

Klase sozialen arteko aldea ez dela nabarmena.

Eta gutxien gustatu zaizuna?

Prezioak.

Zer eramango zenuke Suediara?

Hemengo kultura eta euskal grina.

Eta zer ekarriko zenuke handik?

Oso saiatuak dira. Gu ere bai, baina haiek are gehiago.

Gustuko dantza?

Mugituak direnak gustatzen zaizkit. Makilekin egiten direnak, adibidez.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

Egindako azken oparia?

Lehengusuari Suediatik ekarritako ularra eta futboleko kamiseta.



Eta jasotakoa?

Arkatx bat. Munduko herrialde ezberdinetako arkatzak biltzen ditut.

Data bat?

San Joan gaua.

Mutil eta neska izen bana?

Anartz eta Ainhoa.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Kafetegi batera joaten naizen bakoitzean bertan dagoen edozein eta Interneten Goierriko Hitza, El Diario Vasco...

Gustuko telebista saioa?

Sé lo que hicisteis, Aída... Barrea eragiten dutenak atsegin ditut.

Bereziki gorroto duzuna?

Oh happy day! ez zitzaidan batere gustatu.

Pelikula bat?

La vida es bella.

Liburu bat?

A la sombra del templo, Toti Martínez de Lezearena.

Soinu bat?

Errekarena, mendian.

Usain bat?

Hezetasunarena, beroa egiten duenean.

Janari bat?

Oilaskoa.

Ura ala...

Garagardoa.




Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak

altia



IKER

Ipeñarieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

FAGOR

